



SEGURTASUN SAILA

Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza
Segurtasun Publikoaren sistema hobetzeko herritar-
ekimenen bulegoa -Ekinbide

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Dirección de Coordinación de Seguridad
Oficina de iniciativas ciudadanas para la mejora
del sistema de seguridad pública-Ekinbide



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza
EKINBIDE
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Dirección de Coordinación de Seguridad
EKINBIDE

2018 UZT. 27

SARRERA	IRTEERA
Zkia.	Zkia. <i>00560</i>

Hizkuntza Eskubideen BEHATOKIA

Garbiñe Petriati Ijurra

Marcelo Zelaieta etorbidea, 75-U3

31014 Iruñea

Espediente: 403-2018**EKIN/2018/0161**

Andre agurgarria :

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizugu Ekinbide-Segurtasun Publikoaren Sistema Hobetzeko Herritar Ekimenen Bulego honetara joz erakutsi duzun konfiantzarengatik; proposatu duzun ekimena oso erabilgarria izan daiteke Euskadiko gure zerbitzuen kalitatea hobetzeko.

2018-06-28an, zure idazkia sartu zen bulego honetara. Bertan, pertsona baten kexa adierazi zenigun, 2018-05-21ean identifikatua eta ia atxilotua izan zelako, Ertzaintzaren jardueran batean, euskaraz hitz egiteko eskatu zuelako.

Bulego honek eskatutako txostenaren arabera, egun horretan Ertzaintzaren hainbat polizia-baliabide joan ziren Donostiako Gipuzkoa plazara, bertan "Gipuzkoa plazako jazarpen poliziala" salatzeko bilera jakinarazi gabe bat egiten ari zirelako.

Poliziaren jardueran, hainbat pertsona identifikatu ziren -horietako bat kontzentrazioaren ustezko sustatzailea-, herritarren segurtasuna babesteko 4/2015 Legeko hainbat arau-hauste egin zituztelako. Txostenaren arabera, halaber, ez zen atxilotetarik egon.

Donostiako Ertzain-etxeko burutzak, gertaerak egiaztatzeko jarduerak egin ondoren, berariaz zehaztu du ez zela errespetatu aipatu bideoan agertzen diren herritarren eskubidea, agente jarduleekin harremanak euskaraz izatekoa, nahiz eta gertatutakoa tentsiodun polizia-jarduera batean gertatu zen (ia bi orduz iraun zuen) eta azkenean agenteetako bat euskaraz mintzatu zitzaion.

Halaber, jakinarazi duenez, jardueran esku hartu zuten ertzainei eta unitateko aginte-koadroari jardunbide egokia zein den jakinarazi zaie, eta berariaz eskatu digute beraien partez barkamena helarazteko.

Segurtasun Sailak, *Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko egungo planaren* bidez, hainbat neurri ezarri ditu, Ertzaintzarekin ahozko nahiz idatzizko harremanak euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea benetan bete dadin. (10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa, 5. artikulua, 2. apartatua)

Benetan sentitzen dugu, eta barkamena eskatu nahi diogu kexan aipatu den pertsonari. Planaren helburuak betetzeak, izan ere, zailtasun praktikoak eragiten ditu, eta denbora behar da helburuok eraginkortasunak izan daitezen, kolektibo zabal bati buruz ari baikara.

Bide batez, zure esku geratzen gara beste argibiderik nahi bazenu. Agur bero bat.

Erandion, 2018ko uztailaren 27an

E. Bidaurrazaga

Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen Bulegoko Burua
Responsable de la Oficina de Iniciativas ciudadanas para la mejora de sistema de seguridad pública